

KIKTO ^{ETA}
TAKEN

RAMON ETXEBARRIA

KLETO eta TALEN

IBAIZABAL

Eragilea: Fermin Iraolagoitia

Egilea: Ramon Etxebarria

Marrazkilaria: Carmen Peña

I. S. B. N.: 84 - 86399 - 02 - 5

Depósito Legal: BI - 1905 - 88

Inprimaketa: Igarri, S. C. L. - Rafaela de Ybarra, 1 - Deusto-Bilbao

Argitaratzailea: I. K. A. - Euba - Tnoa. 673 04 86 - 673 18 50

Argitaletxea: Ibaizabal - 141

KLETO ETA TALEN

Udaldia amaitu da. Barriro ere heldu da liburuak besapean edo kirol-boltsan sartu eta ikasten hasteko ordua.

Nork, baina, ikasteko gogorik uda osoan batera eta bestera, hara eta hona ibili ondoren?

Aurten JAKINBIDE institutura lehenengoz datozen ikasleak matrikulea egiteko sasoia heldu da, batez ere irailean azterketaren bat egin behar izan dabena—*dutenek*—, egin behar izango dabe—*dute*—.

O.H.O.ko ikasketak irailean amaitu dabezanak—*dituztenek*— han dabilz batera eta bestera, gora eta behera, esku batean boligrafoa eta bestean matrikulea egiteko orriak dabezalarik—*dituztelarik*—.

Bedelaren zaratak ere ez dira makalak. Inork ez deutso—*dio*— jaramonik egiten, baina dudaren bat daukienean—*daukatenean*— beragana doaz ia zer idatsi behar daben—*duten*— jakiten, nori emon behar jakozan—*eman behar zaizkion*—, e. a.

Orriak txarto bete dabezanak—*dituztenak*— ere hainbat dira. Gehienak dabilz—*dabiltza*— alkarri itaun-



tzen, zer idatzi behar dan, non, izenpetu behar dan ala ez, e . a.

Bedelak, hara eta hona dabilen bitartean, matrikulea egiteko orriak eskatu behar ziran leihatila aurrean mutikote bi ikusten ditu zigarro bana erretzen.

– Hasi gara! Ez dozue–*duzue*– irakurri letra handiz idatzita dagoena, hor aurrean, ala?– esaten deutse–*die*– bedelak.

Ez batak ez besteak ez eban–*zuen*– ezer esan. Ondoko hautsontzira bota eban–*zuen*– bakoitzak bere zigarro-mutxikina. Baina bietariko batek, erdi isilean, –”ezin bada erre, zertarako dagoz–*daude*– hautsonziok, ba?”– esan eban–*zuen*–.

– Nagusientzat! –erantzun eban–*zuen*– bedelak, entzun egin eban–*zuen*– eta.

– Mutiko lotsabako, ausarti hori!!– Hau esanez alde egin eban–*zuen*– bedelak.

Barre algara bat eginaz agurtu eben–*zuten*– mutikook bedela leihatilarantz aurreratuz.

Baina hor ez zan amaitu. Leihatilan orriak banatzen ebazana–*zituena*– kanpora joan zan eta bere ordezt bedela itzi eban–*utzi zuen*–.

Halakoren baten, instituttoa ixteko ordua heldu zanean, badoaz zigarro-erretzaile biok, orriok leihatilaratzen. Bedelak aurpegi ilunaz begiratzen deutse–*die*–.

– Ondo bete dituzue orriok? –esaten deutse–*die*–.



- Baietz uste dogu-*dugu*-, erantzun eben-*zuten*- biak batera.
- Ia, ekarri orriok! Fabian, e!?- esan eban-*zuen*- halako baten bedelak. Eta nor da Julian?
- Julian, nire aita da, hor erdian idatzi dot-*dut*-.
- Bai, ederto! Zure izena ipini behar dozun-*duzun*- lekuan zure aitarena ipini dozu-*duzu*-. Ala, zure aita matrikulatzera etorri zara? Ai, Anakleto, Anakleto,... zigarroak errétzeko prest eta behar dana egiteko keto!

Harrezkero Fabian izenik ez zan entzun Kleto baino-*baizik*-.

Eluri ere heldu jako bere txandea orriak emoteko-*emateko*-. Hau da bigarren erretzailea. Baina, ordaintzeko orduan dirua falta izan jako-*zaio*-.

- Eta zuk, zer? Zigarroak erosten emon dozu-*eman duzu*- dirua, ala?- esaten deuto-*dio*- bedelak.
- Ez. Ez da hori. Honantzean, bidean bokadilo bat jan dot-*dut*- eta, eta, eta,...
- Bai, poeta! Hona hemen gure talento, kabu izateko gauza ez eta sarjento!- esaten deuto-*dio*- honi ere bedelak.
- Eta orain zer egingo deutsuet-*dizuet*- nik zuei? E!? Hau pareta, karakola eta barea! Sartu zaitetze-*zaitetze*- biok barrura, ia konpontzen dogun-*dugun*- ordua da eta!

Harrezkero Elu izenik ere ez zan entzun instituto haretan, Talen baino—*baizik*—.

Hauxe dozue—*duzue*—, ba, aurrerantzako bikotea: Fabian Kleto eta Elu Talen, hauxe da bakoitzak hartu dauan—*duen*— izena JAKINBIDEN.

Lehenengo eguna institutoan

Kletok amaitu barri daukaz—*dauzka*— O.H.O.ko ikasketak. Udako oporrak ere joan dira eta etxe ondoko institutura hasteko prest dago. Joan dan—*den*— ikasturtean beragaz batera ikasi ebenak—*zutenak*— ere, gehienak behintzat, instituto horretara joango dira. Nota txarrak atera dabezanak—*dituztenak*— F.P. egiteko asmotan dabilz—*dabiltza*—.

Kleto oso pozik dago bihar bertan hasi behar daualako—*duelako*—. Erosi dituan liburuak interesgarriak dirala dino eta ikasi egin gura dau—*du*—. Ikastea beti ere mesegarri da eta.

Kleto izatez nahiko ausartia da. Atzo bertan bera bakarrik joan zan erropa barriak erosten eta berari gustatu jakozanak—*zitzaizkionak*— erosi ebazan—*zituen*—. Prakak, alkondarea, jertsea eta beste zerbait erosi eta poz-pozik agertu zan etxean.

Etxekoei ere gustatu jakezan—*zitzaizkien*— erositako erropak, batez ere amari. Garesti samarrak ziran baina onak ere bai.

Irailaren 23a da. Kleto, liburuak besapean hartu eta institutorantz doa. Iaz liburuak morralean eroaten eba-



zan—*eramaten* zituen— baina aurten besapean eroan—*eraman*— behar. Orain ez da iazko eskola-mutikoa, kaskondu egin da eta horrexegaitik daroaz—*daramatza*— liburuak besapean. Aurten eskolara doazenei lepo gainetik begirutzen deutse—*die*—.

Gozozalea da Kleto gurea. Amamak edo etxeko izeko neska-zaharrak emoten deutsien—*dioten*— diruaz pepita edo beste gozokiren bat egunero erosi behar.

Berak gura dauana—*duena*— erosteko dirua heltzen ez jakonean—*zaionean*— eskatzea baino ez dauka, eta eskatu ere zelan—*nola*— egiten dauala—*duela*— uste dozue—*duzue*—?

Amama, atzo kartetan zer egin zenduan—*zenuen*—? —esan ezker; “badator gure negarti”— esaten eban—*zuen*— amamak, eskua partikerara sartuaz.

Jo dabe—*dute*— goizeko bederatziak kanpantorrean. Badoaz. Bakoitza bere gelara doa. Kletok joan dan—*den*— ikasturteko hainbat ikaskide agurtu ditu.

Klasera sartu jaken—*zaien*— irakasleak listaz ipini ditu aulkietan. Hau harrigarria izan da Kletorentzat baina...

Mahai bakoitzean ikaskide bi jesarri dira. Kletori ezkerreko aldean tokatu jako—*zaio*— baina bere mahaikidea, Talen, ezkertia da eta irakasleak emon deutsen—*eman dien*— orria betekeran biak dabilz—*dabiltza*— golpeka, ukondoka.

— Zer gertatzen da, baina?!— dinotse irakasleak. Heldu baino ez zarie—*zarete*— egin eta hasi

zarie—zarete— teman!

- Honek ezkertionek mahai guztia behar dau—*du*— idazteko— erantzun eban—*zuen*— Kletok.
- Ez, ez da egia. Berau da lekua kentzen deustana—*didana*— —erantzun eban—*zuen*— Kletoren ondoan jesarri zanak, Talenek.
- Begira— jarraitu eban—*zuen*— Kletok— zenbat erraia egin dodan—*dudan*— beronen erruz, orri guztia zikindu deust—*dit*— golpeka.
- Zuok biok batera ipintea ez da mesedegarri izango kaltegarri baino—*baizik*— esan eban—*zuen*— irakasleak.
- Guzurtia zara— esan eban—*zuen*— Talenek Kletori begiratu.
- Ni guzurtia?— erantzun eban—*zuen*— Kletok. Guzurtia zeu zara, eta zure aita andrazalea.
- Zu, adurtia eta zure aita mozkortia— Talenek.

Nahiko da gaurkoz, e!?!— esan eban—*zuen*— irakasleak oso haserre. Eta jarraitu eban—*zuen*—, zu Kletojesarri zaitez ertz horretan eta zu Talen beste horretan. Ez zaiteze—*zaitezte*— izan basati eta tematiak.

Azkenean ere, banandu baino lehentxuago alkarri mihina atera eta joan ziran, bakoitza bere aulkira.

Klasetik urten ebenean—*irten zirenean*— laster inguratu ziran biak euren lagunekaz—*lagunekin*— ikasgelan hasitako burrukea aurrera eroateko—*eramateko*— asमतan edo.



Kletok erosi ebazan—*zituen*— prakak gorriskak ziran, kuadrotxodunak.

Talen eta bere taldekoak burlaka hasi jakozan—*zitzaizkion*,— praka hareek—*haiek*— neskenak zirala esanaz eta barriro ere aita mozkortia zala.

Horixe gustatu jakon—*zitzaion*—, ba, gure Kletori. Arin bai, arin joan zan Talen joten, baina hau bere lagunak defenditu eben—*zuten*— eta ez eban—*zuen*— lortu jotea. Kleto amurruaren amurruaz negarrez hasi zan.

Talen eta bere kideak patioko ertz batetik etxeratu ziran beste taldekoei negarti deituaz eta Kleto ta bere kideak bildurri esanaz.

Kleto etxera heldu danean liburuak, plast! bota ditu baztar baten.

— Kleto, zer gertatzen da hain haserre etorteko?— esaten dutso—*dio*— amak.

— Hain haserre?— erantzuten deutso—*dio*— Kleto—. Ni ez nago haserre, eta zugaz—*zurekin*— gitxiago.

Kleto— jarraitu eban—*zuen*— amak— ez naz—*naiz*— hain mamalea eta badakit zerbait gertatzen jatzuna—*zai-zuna*—.

Kleto bainura sartu da. Izerditan etorri da eta bere aurpegia itxuraztu gura dau—*du*— aita heldu baino lehen.

Izeko-zaharrarengandik hartutako mosua

Barikua—*ostirala*— zan. Kleto goizeko ekinaldia egin ondoren etxera etorren—*zetorren*— bazkaltzeko. Bazkaria prest-prest egoan—*zegoen*— mahai gainean, bizkor bazkaltzea gustatzen jakon—*zitzaion*— eta. Bazkaldu ondoren arineketan joan zan eskolara partiduren bat jolasteko.

Baina Kleto ez da konturatu gaur barikua danik eta arratsaldean eskolarantzean izekoari lagundu behar deitsanik—*dionik*—. Beraz, agur esan behar gaurko partiduari.

Etxetik urtekeran amak deitu eutsan—*zion*— eta esan:— Kleto, nora zoaz hain arin? Ez dakizu gaur barikua dala eta izekoari lagundu behar deitsazula—*diozula*—?

Baiiiiiiii!— erantzun eban—*zuen*— Kletok, ekubil biak estutu eta ezkerreko hankeaz ostikada handi bat emonez kanpoko ateari.

— Kleto! Ez da izan behar hain txarra. Txikitán bera joaten zan zuri laguntzen eskolara joaten zina-



nean eta orain zergaitik ez deutzazu—*diozu*— zuk lagundu behar?— esan eutsan—*zion*— amak.

- Instituto aurretik pasatzen garenean lagunak barre egiten deuste—*didate*— horrexegaitik ez dot—*dut*— gura joaterik, eta gainera zenbat denpora behar dauan—*duen*— prestatzen, ezta?— esan eutsan—*zion*— Kletok amari.

Izekoa jazten ebilela—*zebilela*— zan eztabaida guzti hau eta ez eban—*zuen*— ezer entzun.

Halakoren baten urten eben—*irten ziren*— etxetik eta bajoiazan—*bazihoazen*— autobusaren geltokirantza. Kleto haserre egoanez—*zegoenez*— gero isil-isilik joan zan izekoaren atzetik. Hainbat jende egoan—*zegoen*— geltokian autobusaren zain, beste batzuk oraindik bidean etozan—*zetozen*— paketez beterik.

- Gaur zenbat jende dagoan, ezta?— esan eban—*zuen*— Kletok. Izekoak ez eutsan—*zion*— jaramonik ere egin, berean egoan—*zegoen*—.

Kletok autobusa etorrela—*zeturrela*— ikusi ebanean—*zuenean*—, izekoari dirua prestatzeko esan eutsan—*zion*— arinago egiteko, baina ez eban—*zuen*— hartu erantzunik izekoarengandik. Ondoko beste atsozahar bategaz marmarrean ebilen—*zebilen*—.

Autobusa heldu da eta izekoak Kletori kasurik ez deutsalako—*diolako*— egin orain dirurik aurkitu ezinik dabil—*ari da*—.

- Zelango—*nolako*— izekoa daukadan!— esan eban—*zuen*— Kletok buruari eraginaz.

– Kletto!, zatoz hona!– esan eutsan–*zion*– izekoak. –Aurkitu eizuz–*itzazu*– hamalau hogereleko nire boltsan bileteak ordaintzeko, betaurrekoak etxean ahaztu ditut eta ez dot–*dut*– ondo ikusten.

Kletok berak baino ez daki momentu edo une horretan zer pentsatu eban–*zuen*–.

Txoferrak irribarre bat egin eban–*zuen*–. Puru handi bat ezpanetan ebalá–*zuela*– etorren–*zetorren*– eta ondo ezagutzen eban–*zuen*– Kletoren izekoa.

Instituto aurretik pasatu ziranean Kletok ez eban–*zuen*– begiratu ere egin bere lagunenganantz, honeek–*hauek*– ikusiko ete eben–*ote zuten*– bildur zan.

Baina lagunak jakitun egozan–*zeuden*– barikuetan nora eta nogaz–*norekin* –joaten zan eta partidua jokatzera heldu ez zanez gero...

Izekoa heldu zan heldu behar eban–*zuen*– lekura eta ehun pezetako bat emon Kletori. Pozik gorde eban–*zuen*–. Aurreko haserreak ahaztu jakozan–*zitzaizkion*. – Eta izekoak, “zelango lobeá daukadan”, esanaz, mosu bat emon eta iluntzerarte agurtu eban–*zuen*–. Holan banandu ziran alkarrengandik.

Kleto autobusetik jatsi eta lagunengana hurreratu zanean, honeek–*hauek*– barrurantz joiazan–*zihozen*– orduak jo eban–*zuen*– eta.

Eskeilaretatik gora joiazala–*zihozela*–, Talenen taldeko batek, Tobik, esan eban–*zuen*–: Gaur arra-



tsaldean eskolarantza nentorrela Kleto ikusi dot—*dut*—
autobusean eta neska gazte bategaz—*batekin*—
joian—*zihoan*—.

Ikaskide guztiak barreka hasi ziran baina Kletok
Tobiri saihetseko ederra emon eutsan—*zion*—, eta
emona emonda.

Tobi klasera okertuta sartu zan. Irakaslea ere bertan
egoan—*zegoen*—. Klase guztia isil-isilik egoan—*zegoen*—.
Tobi mahi gainean burua botata egoan—*zegoen*—. Hau
ikusirik irakasleak esan eban—*zuen*—: Zer gertatzen da
Tobi? —Kletok jo egin nau— erantzun eban—*zuen*—
Tobik.

Orduan irakasleak biei esaten deutse—*die*— beraren-
gana joateko. Kleto hasi zan zer jazo jakon—*zitzaion*—
kontatzen: Tobik esan deust—*dit*— neska gazte bate-
gaz—*batekin*— joaten ikusi nauala autobusean eta ez da
egia.

Talen zutundu egin zan eta esan eban—*zuen*—: Bai
egia da eta gainera begiratu zer daukan aurpegian.

Klase guztia barreka hasi zan. Kleto arineketan joan
zan kanpora eta espiluan begiratu ia zer daukan ikuste-
ko.

Izekoaren mosua markatuta egoan—*zegoen*— bere
aurpegi guri zuriskan. Harrezkero ez deutso—*dio*—
lagundu gehiagotan izekoari.

Asteburu laburra Kleto eta Talenentzat

Dana egoan—*zegoen*— prest. Kletok eta bere klaseko lagunak lau egunetako asteburua eukien—*zeukaten*— euren—*beren*— kontura mendian pasatzeko. Bizi ziran lekutik ehun bat kilometrotara egoan—*zegoen*—. Inori ez jakon—*zitzaion*— ahaztu zer eroan behar eban—*zuen*— lau egunotarako.

Gurasoengandik hartutako oharrak ere gogoratzen ebezan—*zituzten*—, batzuei laster ahaztuko jakezan—*zitzaizkien*—, baina.

Kletoren amak, Kletok berak beste gogo eukan—*zeukan*— mendira bialtzeko. Amagaitik joan zan, aitak ez eban—*zuen*— gura eta. Baina amak holako gauzak gaztetan egin behar dirala eta lortu eban—*zuen*— aitarengandik baimena.

Izekoa ere, Kleto institutotik zala arrainetan eta okelatan joan zan, gero amak bokadillo ederrak ipini eutsazan—*zizkion*—. Kletori eguneko ogia gustatzen jakon—*zitzaion*— eta bera joan zan eguen—*ostegun*— goizean ogitan.



Eguen goizean zortzi zortziretarako danak egozan—*zeuden*— geltokian. Autobusez joan ziren. Laguntzaile legez soinketako irakaslea joian—*zihoan*—.

Geltoki ondoan egoan—*zegoen*— kioskoa behingoan bete zen jendez. Irakaslea periodikutan eta tabakorritan joan zan, ikasleak pepitatan, T.B.O.tan...

Heldu ziran mendira. Orain hainbat urte gudari-etxe izan zan etxe batera heldu ziran. Etxe hau gazteentzat egokituta egoan—*zegoen*—, asteburuak edo oporrak pasatzeko. Egongela eta logelak oso handiak ziran. Gainera logela bi eukazan—*zeuzkan*—, bata gizonezkoentzat eta bestea andrazkoentzat.

Oheak ez ziran etxeakoak besteko—*bezain*— handiak eta zabalak. Batzuk literak eta besteak bakarrak ziran. Ohe bakarrak alde batean armarioa eta bestean leihoa eukien—*zeukaten*—.

Gabaz, afaldu ondoren, mahaiak eta ontziak garbi-garbi egin eta gero, zikin-zikin egozan—*zeuden*— eta, poz-pezik ohera.

Irakasleak ere gaztea zanez gero ikasleen artean egin eban—*zuen*— lo. Gela guztia egoan—*zegoen*— ilunetan. Irakaslea egoan—*zegoen*— ohe ondoko leihoa bakarrik egoan—*zegoen*— zabalik edo erdi zabalik, hobeto esan.

Irakasleak baekian—*bazekien*— lo non egin. Bere eskumatara Talen ipini eban—*zuen*— eta honen aurrez-aurre Kleto, pasilluaren bestekaldean. Horrela gabaz ez zan arazorik sortuko.

Zergaitik egin eban—*zuen*— hau irakasleak? Ba,

afaltzen egozala-*zeudela*- ere teman hasi ziralako eta ondo ezagutzen zituelako. Talenek Kletori esaten eutsan-*zion*-: "Zuk ez daukazu nik beste-*haina*- diru". Kletok Taleni ostera: "Zure motxilea ere ez da nirea bes-teko-*bezain*- ona eta barria".

Eta horrela ebilzanez-*zebiltzanez*- gero, neurri horreek-*horiek*- hartu behar.

Goizaldeko ordu biak edo izango ziran. Kleto, bes-teak lotan egozala-*zeudela*-, amurrutan egoan-*zegoen*- eta motxilan eukan-*zeukan*- plastikuzko boltsa luzanga bat hartu eta uretan joan zan komunera.

Talen ere ez egoan-*zegoen*- lotan. Laster igarri eban-*zuen*- Kleto zertan joan zen eta harek beste bae-kianez-*bazekienez*- gero, badakizue zer egin eban-*zuen*-?.

Talen, Kleto komunetik zala, ixil-ixilik ohetik jagi eta zabalik egoan-*zegoen*- leihoa itxi eta irakaslearen ezkeraldekoa zabaldu edo erdi zabalik itzi eban-*zuen*-.

Baetorren-*bazetorren*- Kleto komunetik, kontuz-kontuz zaratarik ez egiteko.

Talen begi bata itxita eta bestea zabalik zituela egoan-*zegoen*-. Lotan egoala-*zegoela*- zirudien.

Oso gitxi ikusten zanez gero, Kletok zabalik egoan-*zegoen*- leihoa ikusi ebanean-*zuenean*-, leiho honen eskumaldeko ohera joan zan ixil-ixilik eta urez beteta ekarren-*zekarren*- plastikuzko boltsea, manta-pean sartu eutsan-*zion*- han lo egoanari-*zegoenari*-.



Kleto ohean sartu zan eta dana egoan—*zegoen*— ixilik eta normal.

Talenek eskuetan papel zatitxu bat eukan—*zeukan*— eta bola bat eginaz irakaslea egoan—*zegoen*— ohera bota eban—*zuen*—, baina ez eban—*zuen*— jo antza, zirkinik ere ez eban—*zuen*— egin eta.

Kleto ere ez zan zuk' uste dozun besteko—*bezain*— leloa. Boltsea ur epelez beteta ekarren—*zekarren*— eta horregaitik ez zan itxartzen.

Talen arduratan egoan—*zegoen*— irakaslea itxartzen ez zalako eta estulka hasi zan.

Halakoren baten, zaratok entzun ebazanean—*zituenean*—... hara non jagi zan irakaslea zarataka. Amesetan egoala—*zegoela*— zirudien.

Lo egozan—*zeuden*— guztiak iratxartu ebazan—*zituen*— nor izan zan jakiteko.

Bariku—*ostiral*— goizean, lehenengo orduan herrira joan eta Talen eta Kletoren etxeetara telefonoz deitu ondoren, biak bialdu ebazan—*zituen*— trenez etxera. Kleto egilea zalako bialdu eban—*zuen*— eta Talen, jakitun egon eta ixildu zalako, beraz besteak beste erru eukan—*zeukan*—.

Ez ekian-zekien- zer eukan-zeukan - barruan


Egun haretan gizartea irakasten eban-zuen- irakaslea klasera sartu zanean, mahaiak ez egozan-zeuden- egunero egoten ziran moduan.

Egun horretan irakaslearen urteak ziran eta alperrik zan ixilik egoteko esatea edo ikasi egin behar zala. Inork ez eukan-zeukan- ikasteko gogorik.

Irakaslea bera ere pozik etorren-zetorren- esku biak boltsetan sartuta ekartzala-zekartzala-. Beste egunetan liburuak besapean zituela etorten zan baina gaur ez.

Baekian-bazekien- klasean ezer ezin izango eba-la-zuela- egin. Mahai guztiak baztertuta egozan-zeuden- eta irakaslea, mitinetan politikuei egiten jaken-zaien- moduan, txaloka eta zorionak kantuka hartu eben-zuten-.

Arratsaldeko lehenengo klasea zan "GIZA" irakasleagaz-irakaslearekin- eukien-zeukaten- klasea, baina bigarren orduko irakaslea ez etorrenez-zetorre-



nez- gero, ba, arratsalde osoa jai egiteko asmoa
eukien-*zeukaten*-.

“GIZA”k beste irakasle askoren antzera gozoki bazuk eukazan-*zeuzkan*- klaseko armario barruan eta Kleto gazteena zanez gero, beroni esan eutsan-*zion*-banatzeko.

Kletok ere, beste edozeinek egingo eban-*zuen*-moduan egin eban-*zuen*-: gozokirik onenak bere lagun-*nei* emon.

GIZA irakaslea, lehenengo ordu erdia pasatu zanean irakasleen gelara joan zan. Kanpoan eguraldi txarra egiten ebanez-*zuenez*- gero, klasean eukiezala-*zeuzkatela*- jokoak eta bertan jolasteko esan eutsen-*zien*-.

Han ebilzan-*zebiltzan*- batera eta bestera barreka, saltoka, olgetan, txistek kontatzen, ahal eben-*zuten*-moduan.

Kletok Talenen mahaian, liburupean, tabakorri pakete bat ikusi eban-*zuen*- eta handixik zigarro bat ostu arte ez zan gelditu ere egin.

Klasean, jakina, erretzea debekatuta egoan-*zegoen*- baina irakaslerik ez egoanez-*zegoenez*- gero... Kleto ez zan erretzailea baina holako egunetan gizonkeriak egitea gustatzen da eta...

Zelan edo halan lortu eban-*zuen*- zigarro bat hartzea baina ez eukan-*zeukan*- surik eta hori ere eskatu egin behar. Horretarako jendea prest egoan-*zegoen*-. Tobik eukan-*zeukan*- sua, eta, lagunak ez ziran baina pozik emon eutsan-*zion*-sua.

Tobiren gogo, irakasleak Kleto erretzen harrapaztea zan, horregatik emon eutsan—*eman zion*— sua.

Kleto hasi zan klasean, berak begietatik kea botaten ekiala—*zekiela*— eta ia nork botaten eban—*zuen*— berak botaten eban—*zuen*— moduan, esaten.

Klaseko atean ipini eben—*zuten*— lagun bat irakaslerik etorren—*zeturren*— ala ez jakiteko eta hasi zan Kleto bereak egiten.

Zigarroa ketan eukan—*zeukan*—. Ikasle guztiak inguratu jakozan eta klaseko epelenari esan eutsan—*zion*— eskuaz gogor sakatzeko paparrean eta zuhur begiratzeko begietara.

Jendea prest egoan—*zegoen*— inoren kontura barre egiteko eta joko hau zer zan ekiana—*zekiena*— ixilik egoan—*zegoen*— eta ez ekiana—*zekiena*— Kletoren begietara adi adi, batez ere Kletoren paparrean eskua eukana—*zeukana*—.

Batzuen aurpegietan barre maltzurra agiri zan, Kletoren paparrean eskua ipini eban—*zuen*— mutilaren “ai!”a entzuteko gogo biziz.

Baina ez zan horrela izan. Kletok berak bota eban—*zuen*— “ai”rik handiena, zigarroari tirakada bat egin eutsanean—*zitonean*—, pla! egin eban—*zue-nean*—.

Kletok begia odoletan eukan—*zeukan*—. Arineketan eroan eben—*eraman zuten*— ospitalera.

Talenek ez ekian—*zekien*— bere paketetik hartu ebanik—*zuenik*— baina konturatu zanean arineketan



bota ebazan—*zitu*en— komunetik behera.

Noiz egingo ete dau—*ote du*— ume honek gauza bat behar dan moduan? —esan eutsan—*zion*— aitak, Kleto-ren aitak amari, bere lanetik urten eta ospitalera heldu zanean—. Zer ete—*ote*— dauka hurrengorako gordeta?

Galazota dago hori egitea

Kletoren urtebetetze eguna zan eta institutotik urten ondoren etxera joian-*zihoan*- lanak egiteko. Hau zala eta, aitak, urtero legez telefonoz deitu eutsan-*zion*- eta berak lan egiten eban-*zuen*- lantegi ondoko denda nagusira joateko esan.

Kleto oso pozik egoan-*zegoen*-. Zer dala ta? Ba, aitak narruzko baloi bat erosiko eutsalako-*ziolako*-. Horregaitik eskolara liburuak erroteko eukan-*zeukan*- boltsea eroan eban-*eraman zuen*-. Gainera denda horretan eskeilara mekanikoak egozanez-*zeudenez*- gero, gora eta behera ibilteko aukerea ere izango eban-*zuen*-.

Alkartu ziran, ba, Kleto, eta bere, aita, honek esan eutsan-*zion*- lekuan, denda nagusiaren aurrean. Kletoren aitak ez eukan-*zeukan*- batera eta bestera ibilteko gogorik kotxeaz eta debekatuta egon arren hantxe itzi eban-*zuen*- kotxea, denda aurrean.

- Baina, aita! hemen ezin leiteke-*liteke*- aparkatu kotxerik!- esan eutsan-*zion*- Kletok.
- Zer?- erantzun eutsan-*zion*- aitak. Ezin leitekela-*litekela*- aparkatu?



– Ez dozu–*duzu*– ikusten ze ondo aparkatu dodan–*dudan*–? Hemen ez deutso–*dio*– inori kalterik egiten eta denporea galtzen egon beharrean, goazen arin baloia erostera. Baleiteke–*baliteke*– ertzaina etorri baino lehen barriro etortea.

Sartu ziran dendan. Zortzi pisutakoa zan. Jendez beterik egoan–*zegoen*–. Laugarren pisua zan Kletok eta bere aitak joan behar ebena–*zutena*–. Pisu hau kirol tresnaz eta jantziz beterik egoan–*zegoen*–.

Aita baloia aukeratzen ebilen–*zebilen*– bitartean, Kleto batera eta bestera ebilen–*zebilen*– eta bazter baten Talenek eukan–*zeukan*– moduko kamisetà dotore bat ikusi eban–*zuen*–. Ikusi bakarrik ez, ezin dala hartu jakin arren, isilean eskolako boltsan sartu eban–*zuen*–.

– Kleto, zatoz hona!– esan eutsan–*zion*– aitak.
–Zergaitik ez deustazu–*didazu*– laguntzen baloia aukeratzen hor zulorik-zulo ibili beharrean?– gaineratu eutsan–*zion*–.

Jende asko ebilenez–*zebilenez*– gero gora eta behera, aitak baloia ordaindu ondoren, igogailua hartu eban–*zuen*– arinago egiteko eta Kletok eskeilarak.

Kleto poz-pezik etorren–*zetorren*– beherantz, baina aitak hartu eban–*zuen*– igogailua gorantz joian–*zihoan*–. Horregaitik Kleto behera heldu zanean ez eban–*zuen*– inor aurkitu. –Ezin leiteke–*liteke*– izan– esan eban–*zuen*– berekautan–. Aitak nik baino



lehenago egon behar eban—*zuen*— hemen, eta hemen ez da inor agiri.

Halakoren baten urteerako aterantz hurreratu zan eta ertzain bi ikusi ebazan—*zituen*— bere aitaren kotxe aurrean zerbait idazten egozala—*zeudela*—.

Arineketan urten eban—*irten zen*— dendatik— badator nire aita!, badator nire aita!— esanez.


Jendea zer gertatzen ete—*ote*— zan begira egoan—*zegoen*—, atean egoan—*zegoen*— zaintzailea ere bai. Baina honek ere arineketan urten behar izan eban—*irten behar izan zuen*—, Kletok urten ondoren dendako alarmeak jo ebalako—*zuelako*—.

Aitak, kotxera heldu zanean, han aurkitu ebazan—*zituen*— bost mila pezetako multa bat eta dendako zaintzailea, esku batean Kletoren boltsea eta bestean, honek ostu eban—*zuen*— kamisetea zituela.

Aitak, heldu zanean, oso haserre esan eban—*zuen*—: Ez dago eskubiderik honetarako! Bost minutu bakarrik egin ditut eta bost mila pezeta ordaindu behar!

Ertzainak: Ez zenkian—*zenekian*— debekakuta egoala—*zegoela*— hemen aparkatzea? Ezin dela hemen aparkatu?

Zaintzaileak: Eta dendatik ezin leitekela—*litekela*— ezer atera ordaindu barik—*gabe*—?



Inork baino hobeto dakizu

Ez Kletori ez beste askori ez jaken—*zitzaien*— matematikak ikastea gehiegi gustatzen, baina ikastea besterik ez egoan—*zegoen*—.

Egun baten, ez dakit zer dala ta, irakasleak esan eutsen.—*zien*— kanpora joan beharra eukala—*zeukala*— eta aste osoa kanpoan emongo ebala—*zuela*—. Baina gehiegi ez poztuteko, eurak—*beraiek*— uste eben—*zuten*— baino lan gehiago aginduko eutsela—*ziela*— eta aurreko asteetan baino lan gehiago egin behar izango ebela—*zutela*—.

Kanpora joiala—*zihoala*— esan eutsenean—*zienean*— baino ixilago egozan—*zeuden*— orain ikasleak baina mahaiepetan eskuak igurtzen ebezan—*zituzten*—. “Bost egun matematikarik ikusi barik—*gabe*—!, —zan gehienak esaten ebena—*zutena*—, barriro ere eskuak igurtzi eta alkarri kinu egiten eutsiela—*zietela*—.

Irakaslea etorri ez jaken—*zitzaien*— lehenengo egunean zuzendaria joan jaken—*zitzaien*— oharren bat emotera. Gainera egun horreetan—*horietan*— irakasleen hutsak beteten zituena ere kanpoan egoan—*zegoen*— eta bakarrik egongo zirala esan eutsen—*zien*—. Horregaitik



klaseko zaharrenari esan eutsan—*zion*— arduratzeko hango egoeraz.

Zuzendaria hau esaten ebilela—*zebilela*— ikasleak oso serio egozan—*zeuden*— baina kanpotik bakarrik. Hau klasetik joan baino ez, danak edo ia danak olgetan hasi ziran. Langileenak, eta honeek—*hauek*— gitxienak ziran, ariketak egiten edo isilik egozan—*zeuden*— behintzat.

Amaitu zan astea. Aurreko asteak baino hobeto igaro eben—*zuten*— aste hau. Irakaslea han eukien—*zeukaten*— barriro kontuak eskatzeko prest.

Lanean baino olgetan denpora gehiago egin ebe-
nez—*zutenez*— gero, lanak egin barik—*gabe*— eta ikas-
gaiak ikasi barik—*gabe*— eukiezala—*zeuzketala*— aurkitu
ebazan—*zituen*— irakasleak.

Baekian—*bazekien*— honek, irakasleak, berak agin-
dutako lanak baino gitxiago egingo ebela—*zutela*— baina
hain gitxi ez. Horrexegaitik haserretu zan horrenbeste
eta esan: “Bihar azterketa bat ipiniko deuntsuet—*dizuet*—.
Horrela, ia denporea galtzeko beste dakizuen jakingo
dot—*dut*—. Nor dan—*den*— gehiago jakin gura bado-
zue—*baduzue*— laster jakingo dozue—*duzue*— eta ji-ji-ji
ta ja-ja-ja ibiltea baino ikastea hobe dozuela—*duzuela*—
ere bai.”

Ikasleak buruak makurturik ebezala—*zituztela*— en-
tzun ebezan—*zituzten*— irakaslearen berbok eta ikasten
hasi ziran.

Gela osoa ixil-ixilik egoan—*zegoen*—. Irakaslea
erantzun liburua zabalik eukala—*zeukala*— azterketa

gertatzen ebilen—*zebilen*—.

Kleto irakaslearenganaino heldu zan dudaren bat itauntzen edo, eta laster konturatu zan, zertan ebilen—*zebilen*—. Azterketa gertatzen.

Irakasleak azaldu eutsan—*zion*— Kletori eukan—*zeukan*— dueda eta bakoitzak bereari jarraitu eutsan—*zion*—.

Kletok, egia esan, ez eukan—*zeukan*— dudarik baina irakasleak liburua zein orrialdetan eukan—*zeukan*— zabalik jakin gura izan eban—*zuen*—. Zertarako?

Kleto iluntzean, etxera heldu eta gero, itsu-lapikotik amaren ixilean, dirua atera eta erantzun liburua eroatera joan zan etxe ondoan egoan—*zegoen*— liburudendara.

Etxera heldu eta arin sartu zan bere gelan irakasleak begiratzen eban—*zuen*— orrialdea aurkitzeko asmoz.

Orrialde bakoitzean ariketa bat egoan—*zegoen*—. Ariketa bakoitza zortzi-hamar erantzunetakoa zan gainera. Beraz halakoren bat jausiko ete jaken—*ote zitzaien*— susmoa eukan—*zeukan*—.

Bada-ezpadan orrialde horretako eta aurreko eta osteko bietako ariketak ere kopiatu ebazan—*zituen*—, bakoitza orri baten, eta hurrengo egunean poz-pez joian—*zihoan*— institutora orriok liburu barruan zituela.

Hirugarren orrian eukan—*zeukan*— ariketa tokatu jakon—*zitzaion*—. Klasea amaitu zanean orria atera liburutik eta emon eutsan—*eman zion*— irakasleari eta irribarreka-irribarreka kanporantz joian—*zihoan*—. —



Hurrengo egunean irakasleak zuzenduta ekarzan—*zekartzan*— azterketok eta banandu eutsezan—*zizkien*—. Gehienak, jakina, oso txarto egozan—*zeuden*—.

Kletorena ostera oso ondo. Danak begiratzen eutsen—*zien*— harritura hain ondo zelan egin ete eban—*nola egin ote zuen*— pentsatuz.

Baina zer gertatu zan, irakasleak Kletori deitu eta esan eutsanean—*zioanean*—.... “Kleto, zatoz hona aurrera eta azaldu egizu—*ezazu*— ariketa hau, inork baino hobeto dakizu eta”?.

Handiagorik gertatu ez danean...

Institutora ebilzan-*zebiltzan*- neska biren amak, instituto ondoan dagoen kafetegian, kafe bat hartzeko asmoaz sartu ziran. Egunero hartzen eben-*zuten*- hitzalditxo bat eginez. Gaur inoiz baino ixilago dabilz-*dabiltza*- berbetan.

Hara! -inotsan batak besteari-. Atzo instituto honetako umeren bati zerbait gertatu ei jakon-*omen zitzaion*-. Gure neskatoa etxera heldu baino lehen anbulantzia bat sirenotsean joan ei-*omen*- zen eta uste dot-*dut*- instituto honetan ikasten dabilen mutilen bat zela edo eroala-*zeramala*-.

- Ba, izan leiteke-*liteke*-, erantzun eutsan-*zion*- besteak. Badakizu zergaitik dinotsudan? Atzo ordu horretan, egunero legez, leihoan nengoen eta Kletoren ama ikusi neban-*nuen*- arinetetan gure etxe osteko zubirantza eta ni han ikusten nauan bakoitzean berbalditxo bat egin barik-*gabe*- ez da inoiz ere joaten eta atzo ez eustan-*zidan*- jaramonik ere egin; ez ete-*ote*- ninduan ikusi, ba?



- Bai, ikusiko zinduzan-*zintuen*-, erantzun eutsan-*zion*- besteak. Nik ere ez dot-*dut*- gauza handirik entzun baina ezbeharren bat izan ei dabe-*omen dute*- etxean. Badakizu senarrak edan egiten dauala-*duela*-, ezta?
- Bai baina jendeak esan arren ez dana sinistu. Nahiz eta asteburuetan tabernarik taberna ibili, horrek ez dau-*du*- esan nahi mozkortia danik.
- Ez, ez. Holakorik ez dot esan gura. Baina holako momentuetan...
- Etxera heltzean telefonoz deituko deutsat-*diot*-. Edo hobeto, etxera joan aurretik deituko deutsat-*diot*-, oraintxe bertan.

Mostradore barruan egoan-*zegoen*- mutilarengana hurreratuz zera esan eutsan-*zion*-: Aizu! Hemengo telefonoa erabili leiteke-*liteke*- dei bat egiteko?

- Herri barrura bada -erantzun eutsan-*zion*- mutilak- zenbakia markatzea besterik ez daukazu, eta kanpora bada beharrezkoa da zero markatzea.
- Eskerrik asko!

Halakoren baten, zazpiren bat minutu pasatu zira-nean edo, eskegi eban-*zuen*- telefonoa.

- "Andrak, telefonoa hartzen daben-*duten*- bakoitzean...", esan eban-*zuen*- berekautan mutilak.

- Zer? *-esan eutsan-zion-* kanpoan gelditu zanak telefonora joan zanari.
- Oker gengozan-*geunden-*, erantzun eutsan-*zion-* telefonoz berbetan egoanak-*zegoenak-*. Ez da izan Kletorenean Talenenean baino-*baizik-*. Atzo arratsaldean, institutotik urten eta gero gertatu ei-*omen-* zan, horregaitik ez ei-*omen-* ninduen agurtu Kletoren amak, bere semeari gertatu jakola-*zitziola-* esan ei eutsan-*omen zion-* norbaitek eta.
- Eta zer da Taleni gertatu jakona-*zaiona-*?
- Begira, Kletoren amak esan deustanez-*didanez-*, ba, nahiz eta Kleto eta Talen lagun handiak ez izan, atzo arratsaldez batera ei ebilzan-*omen zebiltzan-* olgetan. Badakizu horreen-*horien-* olgetea, bata bestearen aurka ibiltea dala, ezta? Ba, horretan, ez ei jaken-*omen zitziaren-* gogoratu besterik, talde batekoak bestekoei harriak botatea baino.
- Harriak? Baina, zer dala ta?
- Ba, dirudienez, gure etxe ostean dagoen zubi gainean ei egozan-*omen zeuden-* Kleto eta bere taldea, eta zubipean Talen eta bere taldea. Orduan jokoa ez ei zan-*omen zen-* besterik, goikoak harriak bota eta behean egozanak-*zeudenak-* bustitea baino.
- Ba, zirudienez Kleto aspertuta ei egoan-*omen zegoen-* harri txikiak botaten eta halakoren



baten harri zapal bat bota ei eban—*omen zuen*—
behekoak bustiteko.

- Behekoen zeregina barriz ez zan besterik, noizean behin burua ateratea goikoak zirikatzeke. Holako baten Kletoren harria beherantza etorrela—*zeto-rrrela*— Talenek bere burua atera eban—*zuen*— eta...
- Zer, ezbehar handiren bat?
- Ez, zorionez ez. Ez da izan horrenbestekoa. Ez ei eban—*omen zuen*— buruan jo. Sorbaldan ei—*omen*— dauka daukana. Dirudienez ez da gauza handirik.
- Eskerrak! Handiagorik gertatu ez danean...!

Neure begiak ikusiko ez balebe-*balute*- sinistu ere ez neuke-*nuke*- egingo

Gaur arratsaldean institutoko zuzendariaren urtebetetzea dala, eta gainera bariku-*ostiral*- arratsaldea danez gero Kletok eta beste guztiak jai daukie-*daukate*-.

Ospatzeko goiti-behera lasterketa bat egitea pentsatu dabe-*dute*-. Ikasle gitxik parte hartuko baleu-*balu*- danak batera egingo leukie-*lukete*-, baina jende askok emongo baleu-*balu*- izena, taldeka egin behar izango litzateke.

Soinketako irakaslea dabil jokook antolatzen. Ez da jende gehiegirik apuntatu, horregaitik banan-banan egingo dabe-*dute*- lehenengo lasterketa eta lasterketa honetan arinen egiten daben-*duten*- lehenengo hamarrak hartuko dabe parte bigarrean, baina hemen danak batera.

Goiti-behera dotoreak ekarri dabez-*dituzte*-. Erakusketa bat balitz ere ez litzateke dotoreagorik egongo.



Baina zer gartatu da? Seik egin dabe—*dute*— arinen eta beste zortzi dagoz—*daude*— denpora bardinean. Irakasleak zozketa bat egiten dau—*du*— eta zortzirotarik lau kanpoan izten ditu. Kanpoan gelditu diran laurotarik bi Kletto eta Talen dira. Oso haserre dagoz—*daude*— laurak, batez ere Kletto eta Talen.

Talenek eta Kletok beste lasterketa bat egiteko esaten deutsie—*diote*—. Irakasleak ezetz —esaten deulse—*die*—, beste bat egingo balebe—*balute*— beranduegi amaituko leukiela—*luketela*—; argiago edo goizago balitz egingo leukela—*lukela*—.

Kletto, Talen eta beste biak oso haserre, lagunengandik alde egin eta instituto aurreko eskeilaretara doaz goiti-beherak eskuan dabezala—*dituztela*—. Bakoitzak bere goiti-behera daroa—*darama*— eskuan tarratzarratz.

Jesarrita dagozan—*dauden*— eskeilaren aurrez aurre irakasleen kotxeak dagoz—*daude*— baztertuta. Irakasleen aparkalekua da. Irakasle bakoitzak bere lekua dauka aparkatzeko eta beti izten dabe—*dute*— leku berean. Ezkerretako lehenengoa zuzendariarena da eta handik zazpigarrena eskumatara soinketako irakaslearena.

Bai batak eta bai besteak kotxe bardina eukien—*zeukaten*—, matrikula zenbakia bakarrik zan desbardina. Kotxe barruko aulkien azalak ere bardin bardinak ziran. Aparkalekuagaitik ez balitz sarritan batak bestearena hartuko leuke—*luke*—.

Hau ikusirik, Kletori zera gogoratu jakon—*zi*—

tzaion—: Zergaitik ez ditugu zuzendariaren eta soinketako irakaslearen kotxeak lekuz aldatzen? Zer gertatuko ete—*ote*— litzateke hori egingo bagendu—*bagenu*—?

Hori bakarrik egingo bagendu—*gabenu*— berehala konturatuko litzatekez—*lirateke*—, giltzak ez litzatekez—*lirateke*— sartuko eta— esan eban—*zuen*— lauretariko batek.

Orduan Talenek esan eban—*zuen*—: Eta hori egin ondoren, zuzendaria eta soinketako irakaslea kanpoan dagozanez—*daudenez*— gero, bataren kotxeko giltzak bestearenean sartuko bagenduz—*bagenu*?

Orduan bai, orduan! Horixe izango litzateke onena!, —esan eban—*zuen*— batek.

Esan eta egin. Burpil bakoitzaren azpian goitibehera bat ipini eta hamar minutu baino lehen aldatuta egozan—*zeuden*— kotxeak.

Giltzen arazoa ere, irakasleen gelako atea zabalik aurkitu ebenez—*zutenez*— gero, laster konpondu eban—*zuten*—.

Amaitu zan jaialdia, ilun egoan—*zegoen*—, arratsaldeko sei t'erdia ziran eta soinketako irakaslea etxerantz joian—*zihoan*—. Lehenengo ekinaldian arrankatu ez baeban—*bazuen*— ere hirugarrenen edo laugarrenean egin eban—*zuen*—.

Eta orain zer?— esan eban—*zuen*— Talenek. Zuzendariak bardin egiten badau—*badu*— ez dira konturatuko.

Kletok esan eban—*zuen*—: Ez litzateke txarto



egongo gutariko batek Udaletxera deituko baleu-*ba-lu-*, ezta?

Horixe egingo dogu-*dugu-*, esan eban-*zuen-* Kletok, eta gero soinketako irakaslearen kotxea barriro lehen egon dan-*den-* aparkalekura eroango dogu-*era-mango dugu-*. Ez, lehen egon dan lekura ez, instituto ostean ostenduko dogu-*dugu-*.

Zuzendaria ere, bere lanak amaitu ebazanean-*zi-tuenean-*, institutotik kanporantz etorren-*zeturren-* baina ez eban-*zuen-* aurkitu kotxerik bere aparkalekuan. Harrituta, batera eta bestera begira dabil baina alperrik.

Beregaz-*berarekin-* batera atezaina dago eta honen kotxean Udaletxera doaz salaketa egitera. Hara heldu diranean eta zer gertatu jakon-*zaion-* konkatu, udal-ertzainak esan eutsan-*zion-*: Zatoz, zatoz neugaz-*nirekin-* barrura eta ikusiko dozu-*duzu-* nor dan lapurra!

Heldu ziran gela batera eta handik ikusi eban-*zuen-*, leihotila baten bitartez soinketako irakaslea beste lau udal-ertzain aurrean ebazala-*zituela-* haren-*haien-* itaunei erantzuten.

“NEURE BEGIAK IKUSIKO EZ BALEBE-*BA-LUTE-* SINISTU ERE EZ NEUKE-*NUKE-* EGIN-GO”- esan eban-*zuen-* zuzendariak.

Kletoren ibilaldia

Kleto ta, dabilzan—*dabiltzan*— institutokoak urtero egiten dabe—*dute*— ibilaldiren bat nonora. Orain arte ibilaldi hau egun bikoa izan da baina aurten, ez dakit zergaitik, egun batekoa bakarrik izango da. Dirua ere dana batera ordaindu beharrean, errezago ordaindu daien—*dezaten*—, apurka apurka, astero, zerbait ekarten dabe—*dute*—, hogeiren bat hogerleko edo.

Egun baterako diru gehiegi daukienez—*daukate-nez*— gero, ibilaldia ordaindu eta gero gelditzen jake-naz—*zaizkienaz*— afari eder bat egingo dabe—*dute*— etxerantzean nonon.

Afari hau dala eta, irakasleak ikasleen etxeetara deitu dabe—*dute*— baimena lortzeko gabaz beranduago etorri daitezen, ibilaldia egun batekoa bakarrik zala ta, aitzakitzat ipiniatz.

Gurasoak ez dabe—*dute*— ezetzik esan irakasleren batzuk joatekotan dira eta. Irakaslerik joango ez balitz ez leukie—*lukete*— onartuko ibilaldia, hori esan beharrik ere ez dago. Zerbait gertatuko balitz ere irakasleak deituko leukie—*lukete*— etxera, gurasoak arduraz egon ez daitezana.



Urten dabe—*irten dira*— ba, goizean goizetik, instituto aurretik, eguna luzeagoa izan daiten—*dadin*— eta inguru gehiago ikusi daien—*dezaten*—.

Holako egunetan etxeakoak euren—*beren*— seme-alabei diru apurren bat gehiago ere emoten deutesiee—*diete*— txibizkeritxuren bat erosi daien—*dezaten*—, beste lagunak baino gitxiago izan ez daitezcan, e. a.

Bidean txoferrak bideoak eta gaurko musikea ipintzen deutse—*die*— alaitu daitezcan. Tarteka, neska-mutilen txisteren bat ere entzuten da eta lora banakaren bat ere bai.

Txoferrari ere arinago egin daian—*dezan*— betiko abestiak abesten deutesiez—*dizkiote*— noizean behin, batez ere aldatz goretan, martxea eskasten dauanetan—*duenetan*—.

Ez dago ibilaldirik antzinako eleiza, gaztelu, jauregi, lekaidetxe edo horrelakoren bat ikusten ez danik. Oraingo honetan ere ezin falta eta ibilaldia gertatu dabeanean—*dutenean*— holako bat baino behiago ikusteko asmoa dabe—*dute*—. Egun biko ibilaldia balitz gehiago eta astiroago ikusiko leukiez—*lituzkete*— baina denporarik ez dagoenez gero arin baten egin behar.

Hasierako lehenengo eleizea eta gaztelua gustora ikusi dabez—*dituzte*— baina apurka apurka jendea atzean gelditzen da eta erakuslea irakasleekin gelditzen da, bakarrik. Beste guztiak aspertu egin dira.

Egun bat, luzeena bada ere, arin amaitzen da, labur egiten da. Baina oraindik onena gelditzen jake—*zaie*—: gaueko afaria. Eguerdian danak jan dabe—*dute*— boka-

diloa herri txiki baten, taberna baten ondoan edariren bat hartu daian—*dezan*— gura dauanak—*duenak*—.

Gauetz etxerantzean afari dotorea egiten dabe—*dute*—. Jan eta edan neurririk barik—*gabe*—, batez ere bigarrena. Ohitura faltea ere izango da, baina Kletok polito polito heldu da etxera. Goizaldeko ordu biak edo dira eta autobuseko lagunak agurtzeko astirik barik lehenengo dagoen boltsea hartu eta badoa etxera.

Gurasoak ohean aurkitu ditu eta amak ohetik zer-bait esan deutso—*dio*—. Kletok urrumaren bat egin eta ekarri dauan—*duen*— boltsea mahai gainean itzi dau—*utzi du*— eta ozta-ozta idatzi dau—*du*— orri baten ondorengo hau:

— “Boltsa barruan dagoena, plastikuzko boltsa barruan, zeuretzat, izekoa”.

Kletok badaki izekoa goizean bera baino lehenago jagiko dala eta gainera dirua emon eutsanez—*eman zio-nez*— gero, zerbait ekarri egin behar!

Kletoren izeko zaharra jagi da egunero legez goizeko zortzirak inguruan eta Kletok idatzi dauana—*duena*— irakurri dauanean—*duenean*— ia-ia negarrari emoten deutso—*dio*— pozaren pozaz.

Poz handi honek gehiago irauin daian—*dezan*—, boltsa zabaldu baino lehen gosaldut egiten dau—*du*— Kletok idatzitako orriari begirik kendu ere egin barik. Zenbat maite nauan Kletok!— esaten dau—*du*— berekautan.

Halakoren baten zabaldu dau—*du*— Kletok ekarritako pakete hori eta... arnaseak ere huts egiten deu-



W DAGOENA
A BARRIAN
AT, IZEKOA

tso-*dio*-. Ez ditu aurkitu ba, boltsa horretan neska baten barruko aldagarriak?

- Aitaren eta semearen... Baina, baina... Zer da hau? Fe-Fe-Felisaaa!!! Zatoz arin hona!- Felisa Kletoren ama da. Ikaratuta jagi da ohetik izekoaren zaratak entzun dituelako.

- Zer gertatzen da?

- Zer gertatzen dan? Begiratu zer ekarri deustan-*didan*- Kletok. Atzo nondik nora ibili ete-*ote*- da? Norekin ibili ete-*ote*- da?

Kletoren amak arakatu dau-*du*- boltsa barrua eta karne bat aurkitu dau-*du*- barruan. Karne hori Milarena da. Mila Kletoren lengusina da. Izekoari berriro ere etorri jako-*zaio*- arnasea, etorri da bere senera.

Geldi egon ezina

Kletoren etxekoak ez ekien—*zekiten*— zer egin Kletogaz—*Kletorekin*—. Ez zan mutiko txarra baina beti etorren—*zeturren*— etxera nahasteren baten sartuta.

Bera sartzen ez zanetan, besteren batek sartzen eban—*zuen*—, baina egia esan ez jako—*zaio*— indar handirik egin behar, inork lagundu barik—*gabe*— sartu daiten—*dadin*—.

Gaurkoa ere gogorra izan da. Eguraldi ona egin dauanez—*duenez*— gero, naturako irakasleagaz—*irakaslearekin*— mendira joan dira, tiro batez txori bi hilteko asmotan; alde batetik landarei buruz zerbait ikasi daien—*dezaten*— eta beste alde batetik, aspaldian urteerarik egin ez dabenez—*dutenez*— gero, haize garbi apur bat hartuaz, birikiak apur bat garbitu daiezan—*ditzaten*—.

Esan beharrik ere ez dago, hori egiten daben—*du ten*— bitartean ondo pasatu daien—*dezaten*— asmotan joan dirala.

“Dabilenari jazoten ei jako—*omen zaio*—”, dino antzinako esaera batek, ez dabilenak arrisku gitxiago ere badauka eta.



Kleto eta Talen, lagun handiak balira legez—*beza-la*—, ospitalean dagoz—*daude*— alkarren ondoan. Beti alkarregaz—*alkarrekin*— eta beti haserre ez balira ez litzatekez—*lirateke*— Kleto eta Talen izango, eta, nahiz eta eurak—*beraiek*— bakarrik ez izan errudunak, ordaindu, balira legez egiten dabe—*dute*—.

Eta norbaitek itaunduko baleutso—*balio*—, zergaitik egiten dituan egiten dituanak, ziur nago, lagunei kalterik egiteagaitik ez dabela—*dutela*— egiten erantzungo leukela—*lukela*—, batak zein besteak.

Zer dala ta dagozan—*dauden*— ospitalean? Eguerdian mendian bazkaltzeko asmotan joan dira, baina bokadiloak eroan—*eraman*— beharrean, mendian bertan gertatzeko asmotan joan dira. Eta jakina, tortila on bat jan daien—*dezaten*— arraultzak, orioa, zartagina, e. a., e. a., eroan—*eraman*— behar.

Batzuk janaria, edo hobeto esan, bazkaria, gertatzen daben—*duten*— bitartean, besteak, jokoak egiteko asmoz joan dira. Horretarako baloia, soka bat eta hola-koak hartu dabez—*dituzte*— aspertu ez daitezana.

Beti legez, hemen ere, Talenek eta Kletok alkarren aurka jokatu behar dabe—*dute*—, hori egin ezik ez litzatekez—*lirateke*— Talen eta Kleto izango eta.

Bazkaldu aurretik futboleant jokatu dabe—*dute*—. Leku egokia izan ez arren, han ibili dira jo ta ke, zeinek gehiago. Norbaitek esango baleutse—*balie*—, zelan—*nola*— jokatu daben—*duten*— leku haretan, oso leku egokia izan dala erantzungo leuskioe—*liokete*—. Izan ere, norberak nahi dauanean—*duenean*— ez dago leku txarrik.

Halakoren baten Kletoren taldeko batek penalti egiten dau—*du*— eta Talenek jaurti behar dau—*du*—. Kletok ipini dau—*du*— baloia Talenek jaurti daian—*dezan*—. Talenek jaurti baino lehen, Kletok zerbait esaten deuto—*dio*— belarrira bere taldeko atezainari.

Talenek gol bi sartu deutoz—*dizkio*— atezainari. Alde batetik baloia sartu dau—*du*— eta bestetik baloia-
ren azpian egon dan—*den*— pago sustarra.

Talen, hartu dauan—*duen*— minaz, zelaira jausi da. Ezin da zutundu. Eta zelaian dagoen bitartean pelikula bat balitz legez—*bezala*—, Kletok atezainari belarrira zerbait esaten ikusten dau—*du*—. Ezin ditu ahaztu irudi honek—*hauek*—. Orain partidua amaitu arte kanpoan egon behar.

Arratsaldean sokatiran egin behar izan dabe—*dute*—. Talenek ezin parterik hartu, baina bai bere taldea zuzendu. Horregaitik sokatiran hasi baino lehen, Talenek bere taldekoei zerbait esan deuto—*die*— belarrira.

Zeinek gehiagoka ibili dira. Sokea batera eta bestera dabilen artean, Talenek bere lagun bati zartaginean ura berotu daiala—*dezala*— esaten deuto—*dio*—. Honek, golpea hartu dauan—*duen*— hankan egin daian—*dezan*— dalakotan, zartagin bete ur ipinten dau—*du*— sutan.

Ura berotu danean, zartagina hartu eta beste zerbait egiten balebil legez, Kletoren osterara doa. Kletok bere taldekoak tiratzen daben—*duten*— soka muturrean dago. Orduan Talenek berei kinu bat egiten deuto—*die*—, eta honek—*hauek*— indar egitearek itzi egiten deuto—*diote*—.



Kleto eta bere taldekoak hankaz gora jausi dira, baina Kleto, zoritxarrez, Talenek eperdipean ipini deutsan—*dion*— zartagin gainera. Zeuok atera kontuak zer gertatu jakon—*zaion*— Kletori.

Orain biak dagoz—*daude*— ospitalean, alkarren ondoan. Bata auzpez, eperdia erreta daukalako eta bestea atinik, ezkerreko hankako bost behatzak apurturik.

Inozenteen eguna

30 egun beranduago

Gabonetako oporrak igaro ondoren, barriro ere eskolara. Ikaskideen artean, Olentzerok edo Erregeak, bakoitzari zer ekarri eutsan—*zion*— baino ez zan entzuten.

Kletori eta Taleni aurpegira begiratzea baino ez egoan—*zegoen*—. Ez batari ez besteari ez jakon—*zitziaion*— heldu inor. Zergaitik? Zergaitik izango da, ba; nota txarrak atera ebezalako—*zituztelako*—.

Etxean bai batari eta bai besteari gogor egin eutsien—*zieten*—, halakorik barriro gertatu ez daiten—*dadin*—, eta nota hobeak ateraten ahalegindu daitezten.

Urtarrilaren 27an goizez, Kleto eta Talen bakoitza bere aitagaz—*aitarekin*— zuzendaritzan dagoz—*daude*— zuzendariarekin. Kristorenak entzun eta gero ikasgelara doaz.

Kleto eta Talen, nahiz eta lagunak ez izan, zoritxar honetan lagun egiten dira.

Egun osoa batera, alkarrekin emon eben—*zuten*—, beste inor ere barik—*gabe*—. Ikaskideak ere harrituta egozan—*zeuden*— lagun egin zirala ikusirik.



Baina Tobik, Talenen taldeko bigarrenak, susmo onik ez eukan—*zeukan*—.

— Horreek—*horiek*— biok batera ibilteko bakez ez dabilz— esaten eban—*zuen*— berekautan.

Urtarrilaren 28an Kletoren aitaren lantegian, bulegoan, telefonoak jo eban—*zuen*—. Goizeko lehenengo ordua zan. Kletoren aitak hartu eban—*zuen*— telefonoa.

— Bai, nor da?

— Eluren aita naz, Talenena.

Gurasoak ere euren—*beren*— artean alkarri ulertzeko gehienetan Talen eta Kleto izenak erabilten ebezan—*zituzten*— eta ez Elu edo Fabian.

— Zer gura dozu—*duzu*—, ba?, esan eutsan—*zion*— Kletoren aitak.

— Ez duzu—*duzu*— irakurri gaurko periodikua?

— Ez, ez ba. Oraintxe bertan heldu naz—*naiz*— eta atzoko lana atzeratuta daukadanez gero... Zer, ba?

— Ba, begiratu eizu—*ezazu*— zer gertatu dan Talen eta Kleto dabilzan institutoan. Dinoana egia bada ez dakit zelan—*nola*— ibiliko garen. Artxiboko notak ere ostu eta erre egin ei dabez—*omen dituzte*—.

— Eta zer esan gura dozu—*duzu*—, gure semeak izan dirala edo izan leitekezala—*litezkela*— hori egin dabenak—*dutenek*—?

— Ez neuke—*nuke*— ezetzik esango.

— Joan gaitezen bertara. Itxaron eidazu—*iezdazu*—

zure lantegiko ate aurrean, hortxe bertan hartuko zaitut biok joateko.

Bidean, institutorantz doazela, Talenen aitak Kletorenari zera esaten deutso—*dio*—; bart, hau da, 27tik 28rako gaua Talenek lorik egin ezinik emon dauala—*duela*— eta pitean-pitean konumera jagiten zala eta gau osoa arduratuta emon ebela—*zutela*—.

Kletoren aitari hau antzutean arnaseak ere huts egin eutsan—*zion*—.

—Ba, gure mutila ere bardin ibili da gau osoan—, esan eutsan—*zion*— Kletoren aitak. —Hori horrela bada, argi daukagu nortzuk diran—, erantzun eutsan—*zion*— besteak, aurpegia luzeluz piniaz.

Institutura heldu arte ez eban—*zuen*— inork ahorik askatu. Bakoitzak berea eroan—*zeraman*— buruan.

Heldu ziran institutura eta batera eta bestera begiratzen hasi ziran, inguru guztia jendez beterik egongo zalakotan. Baina ez eben—*zuten*— beste munduko zerik aurkitu. Itxura baten trankil egoan—*zegoen*— giroa.

Ertzainak, telebisinoa, kazetariak eta holako jendez beteta aurkituko ebela—*zutela*—, baina ez.

Zuzendaritzara sartu ziranean, arnasarik hartu barik—*gabe*—, zuzendaria eta katezari bat egozan—*zuden*— barruan berbetan. Kazetari hau periodikuan iragarri ebana—*zuen*— zan, gero jakin ebenez—*zutenez*—.

Zuzendariak guraso bion aurpegiak ikusirik, batera zuri-zuri eta bestearena izerditan, lasaitzeko esan



eutsen—*zien*— ez zala ezer gertatzen eta.

Kletoren aitak, Talenenak esan eutsana—*ziona*—gogoratuz esan eutsan—*zion*—: “Ezer ez dala gertatu? Gitxi deritxazu gertatutakoari?”

Ondoren kazetariak azaldu eutsen—*zien*— dana.

Ni egunero legez, esan eutsen—*zien*— kazetariak, goizaldeko ordu bietan joaten naz—*naiz*— bulegora azken albiztak idazten, eta horretan ninoiala—*nindoala*—etxeko buzoian eskutitz edo ohar hau, gura dozuen—*du-
zuen*— legez, aurkitu neban—*nuen*—. Ikusirik nondik etorren—*zetorren*— eta nork izenpetuta egoan—*ze-
goen*—, ez neban—*nuen*— izan dudarik txikienik ere egia zala. Horrexeagaitik iragarri neban—*nuen*—.

Eta zuk izenpetutako orria da hau?, esan eutsan—*zion*— Talenen aitak zuzendariari.

Ez, erantzun eutsan—*zion*— zuzendariak. Badirudi norbaitek nire orriak ostu egin dituala. Nik, hemen ez nagoenetarako, holako orri batzuk izenpetuta izten dodaz—*uzten ditut*— idazkariak edo zuzendariordeak erabili daizan—*ditzan*—. Dana dala, hobeto da holan izan daiten—*dadin*— eta ez periodikuan agertu dan moduan.

Gure mutilon gurasoak sakonetik hartu eben—*zuen*— arnasea nahiz eta oraindik euren—*beren*— semeak izan zirala uste izan.

Talenek eta Kletok, alkarri begiratu eta ikasgelako leihotik begiratzuz, barre egiten eben—*zuten*—, instituto aurreko zelaigunea jendez beteten joiala—*zihuala*— ikusiaz.



Institutoko bedelak eskuak jasoaz, etxerantza bial-
tzen ebazan—*zituén*— hara etozen—*zetozen*— guztiak
zera esanez: “Gaur hilabete izan zan inozenteen eguna”.

Aste Santua

Aurten Aste Santu barruko ekintzetan, guraso alkarteak, irakasleen languntzaz, Jesukristoren kurutz-bidea antzeztea erabagi dau-*du*-.

Ospatuko zan tokia oso egokia zan. Institutoa Pilato-sen etxetzat hartu eben-*zuten*-. Alboko etxea, atezai-narena, Herodesen etxetzat, eta instituto osteko mendi tontorra, Kalbario menditzat.

Hainbat guraso eta herritarrek hartzen dabe-*dute*-parte. Ikasleen aldetik ez dago parte hartzaile askorik, eta kristau ikasbideko irakasleak, ikasleak ere parte hartu daien-*dezaten*- gura dau-*du*-.

Talenek eta Kletok ere, ez dago esan beharrik, ez dabela-*dutela*- parterik hartu nahi baina, kristau ikasbideko irakasleak azterketan berbertan harrapatu eba-zan-*zitu*en- eta aprobatzeko baldintza legez parte hartzen behartzen ditu.

Bai Talenek eta bai Kletok emon dabe-*eman dute*-baietza, baina biak batera ibilteko baldintza eskatzen deutsie-*diote*- irakasleari.



Irakasleak batari lapur onaren eta besteari gaiztoaren zeregina eskeintzen deutse-*die*-, irakasleak berak Jesukristoren ordezkotzat egingo dau-*du*-.

Kleto ados dago, baina Talenek ez dau-*du*- gura egur handi bat lepoan hartu eta mendian zehar tontorre-raino joaterik, nekagarria deritxo.

Azken aukera legez, irakasleak zigortzaile zeregina eskeintzen deutse-*die*-, nahiz eta konfiantza lar ez izan "barrabas" biongan. Horregaitik esan eutsen-*zien*- ezertan hasi baino lehen, han egingo zan guztia antzerkia zala eta ez benetako kurutz-bidea.

Orduan Talenek esan eutsan-*zion*-: "Benetan egi-nez gero hobeto izango litzateke, ala bildur zara sufri-tzen?".

Irakasleak irribarre bat egin eban-*zuen*-. "Zuek biok batera ibiliz gero edozer gertatu leiteke-*liteke*"-
-esan eutsen-*zien*- irakasleak.

Dana egoan-*zegoen*- prest. Talde bakoitzak bere gelea eukan-*zeukan*- instituto barruan, eta gela barruan bakoitzak behar eban-*zuen*- jantzi, tresna, ontzi, e. a.

Talenek eta Kletok joan behar eben-*zuten*- gelan egoan-*zegoen*- tresnarik gehien: eskeilara luze bat, kurutzea, ezpatak, mailua, sokak, zigorrak, e. a.

Baina benetakoak, kurutzea, eskeilarea eta sokak baino ez ziran. Zigorrak ez ziran benetakoak. Gomazko kirtena eukien-*zeukaten*- eta barruan unto gorria. Kir-tenean sakatuez gero, hamar bat hodi meheren bitartez,

zigor muturreko algodoi boletara heltzen zan unto gorri hori. Unto honek odola zirudien.

Hasi zan eleizkizun edo antzerkia. Eta ebanjelioak dinoan moduan heldu zan zigorraldia. Une honetara arte Talenek eukazan—*zeuzkan*— zigor biak, eta zigorraldia heldu zan arte, ospakizunari bizitasun apur bat gehiagotzeko edo eransteke, eta baita irakaslea astintzeagaitik ere, ez jakon—*zitzaion*— besterik gogoratu, zigor bati algodoi boletan berunezko bolak ipintea baino. Berunezko bola honeek—*hauek*— bere aitak erabilten ebazan—*zituen*— arrainetan joaten zanetan, asteburuetan, amua urpera joan daiten—*dadin*—.

Zigorraldia hazi zan unean, Talenek kletori berunezko bolak eukazan—*zeuzkan*— zigorra emon eutsan—*eman zion*— eta hasi ziran biak goitik behera emoten—*ematen*—.

Jendea adi-adi eta isil-isilik egoan—*zegoen*—, batzuk antzerkia ikusteagaitik eta beste batzuk benetan bizi ebelako—*dutelako*—.

Baina, benetan bizi ebana—*zuen*— irakaslearen bizkarra zan. Talen eta Kleto jo ta ke, golpeka hasi ziran, bizkarra berotu ezeze gorritu, baltzitu eta mindu ere egin eutsen—*zieten*—.

Irakaslea zutarri baten egoan—*zegoen*— lotuta eta halakoren baten, zutarri ta guzti lurrera jaisi—*erori*—zan.

Jauskera honek bizitasun handia emon eutsan—*eman zion*— eleizkizunari. Jendeak, benetan



zala—zela— uste eban—zuen—. Uste bakarrik ez, izan ere bai. Irakasleak gehiago ezinik, zorabiotuta lurrera jau-si—erori— zanean golpe ederra hartu eban—zuen— beko-kian. Auzpez dago zelaian.


Holakorik inork ere ez eban—zuen— uste, ez egoan—zegoen— programaturik eta. Eta irakaslea ez zanez gero zutuntzen, bost erromatar gudari hurreratu jakozan—zitzaizkion— eta Pilatosengana eroan—era-man—.

Pilatosengana eroiela—zeramatela—, ondo ez egoa-la—zegoela— konturatu ziran. Zelan edo halan kon-pondu behar zan eta jendearengandik estaldu eta ezer gertatu ez dan moduan, gudarietako batek, odoletan egoan—zegoen— irakaslearen jantzia ipini eban—zuen— ordezkotza egiteko eta hau, isileko atetik atera eta ospi-talera eroan eben—eraman zuten—.

Guzti hau gertatzen zan bitartean, Talenek Kletori zigorra eskatu eta berunezko bola guztiak kendu eutsa-zan—zizkion—. Azkenengoa kendu baino ez, erromatar gudari bat hurreratu jakon—zitzaion— Taleni zigorrak eskatuaz, eta berari laguntzeko esanaz.

Gudari hau antolatzaileetako bat zan eta zer gertatu zan jakin gura izan eban—zuen—, nahiz eta ezer lortu ez. Talenek ordurako berunezko bolak ur-ixurki batetik behera botata eukazan—zeuzkan—.

Jendea ez zan konturatu han gertatzen zanaz. Ikus-ten ebena—zutena— antzerkiaren zatietako bat zala uste izanik.



Harrezkero zenbat aldiz entzun behar izango ete eban-*ote zuen*- kristau ikasbideko irakasleak esaldi hau: “Ez dozu-*duzu*- balio ez kristorenak hartzeko ez egiteko”.

Azken azterketen aurreko eguna

Ikasturtea amaitzeko hiru egun falta ziran. Talen eta Kletto suspenso bat baino gehiago aterateko arriskuan egozan—*zeuden*—, eta ikasten izan ez arren ez ziran geldituko ahaleginik egin barik—*gabe*— gai guztiak gainditzeko. Honelako egoeratan biak alkar hartzen eben—*zuten*— ahal ziranak eta ezin ziranak egiteko. Horretan mutilak ziran.

Zeozar asmatu behar zala ta egozan—*zeuden*— eta horretarako onena—*hoberena*— irakasleen gelara sartzea zala uste eben—*zuten*—. Baina zelan—*nola*— lortu hara sartzea? Norengandik lortu giltzea?

Talenek eta Kletok lagun bat eukien—*zeukaten*—, hainbat zaharragoa zan baina lanik ez eukanez—*zeukanez*—, ezta egiteko gogorik ere, harengana jo eben—*zuten*— laguntasun bila. Lagun hau Kankan zan eta baka-rik bizi zan.

Ikasturtea amaitu ondoren azterketak etozan—*zetozen*—. Hori zala ta klaseak amaitzen ziran azken egunean, ikasturtearen amaiera legez meza bat izango



eben—*zuten*— goizeko hamarretan eta jarraian jokoak. Irakasleak batzar bat egingo eben—*zuten*—honeek—*hauek*— jokatzen eben—*zuten*— bitartean.

Burua apaurtzen ebilzan—*zebiltzan*— Talen, Kleto eta Kankan, zer egin asmatu ezinik.

Instituto ondoan lekaidetxe bat egoan—*zegoen*— eta institutoan mezaren bat egoanetan—*zegoenetan*— hemengo aita Boni joaten zan aita Eliseori, institutoko abadea zan hau, laguntzera norbaitek autortu nahi izanez gero edo.

Kletoren izeko zaharra beti egoan—*zegoen*— lekaidetxean sartuta eta hemengo eleizearen ardurea berak eukan—*zeukan*—. Eleizako garbikuzia ere berak egiten eban—*zuen*—. Egun birik behin ere aita Bonigaz—*Bonirekin*— autortzen zan.

Nahiz eta pekaturik egin ez, mania hori eukan—*zeukan*— eta, nork esan ezetz?

Eguerdia zan. Egun t'erdi falta zan. Talenek, Kletok eta Kankanek oraindik ez ekien—*zekiten*— argi eta garbi zer egin.

Kleto eguerdian etxera heldu zanean bazkaltzeko, izeko zaharrak esan eutsan—*zion*—: “Kleto lastana, gaur goizean aita Bonik esan deust—*dit*— institutoko abadeari esateko, aita Eliseori, bihar ezin dala joan laguntzera preminazko joanbehar bat sortu jakola—*zaiola*— eta. Esango deutzazu—*diozu*—?”

— Bai izeko maitea—, erantzun eutsan—*zion*— Kletok. Badakizu holako mesedeak egiteko beti nagoala prest.



Arratsaldean Kleto joan zan aita Eliseorengana baina ez eutsan—*zion*— esan izekoak esandakoa, beste hau baino—*baizik*—:

“Aita Eliseo, izekoak esan deust—*dit*— goizean aita Bonik esan deutsal—*diola*— bihar berandutxuago etorriko dala baina zuk mezea hamarretan hasteko, bera datorrenean autortegian sartuko dala eta.

Aita Eliseok eskerrak emon eutsazan—*zizkion*— eta bakoitzak bere aldetik jarraitu eban—*zuen*—.

Iluntzean hiru lagunok alkartu ziran. Kletok etxe-koei, Talenen etxera doala ikastera esan eutsen—*zien*— eta Talenek Kletorenera doala.

Etxekoak horretan egozan—*zeuden*— baina biak joan ziran Kankanen etxera. Hurrengo egunean aita Boni hasi zan hamarretan mezea esaten. Minutu batzuk beranduago autortegiko argitxua izitu zan. Aita Eliseok ohar hau esan eban—*zuen*—: “Norbaitek autortu gura badau—*badu*— aita Boni autortegian dago”. Ondoren mezea esaten jarraitu eban—*zuen*—.

Irakasle guztiak egozan—*zeuden*— mezatan nahiz eta danak ez izan eleizakoiak.

Aita Eliseok oharra emon—*eman*— baino ez irakasle bat autortzera joan zan.

Aita Bonik, Kankanek, irakasle honi liburutegiko giltza eskatu eutsan—*zion*— libururen bat behar eba-la—*zuela*— eta. Irakasleak giltza pilo bat eukan—*zeukan*— eta danak batera eukazanez—*zeuzkanez*—, —hauxe da— esanez giltza txorta osoa emon eutsan—*eman zion*—.



Kleto zan bigarren joan zana autortzera. Aita Bonik emon eutsazan—*eman zizkion*— giltzak hartu eta inor konturatu barik—*gabe*— eleizatik urten eta irakasleen gelara joan zan zuzen zuzen. Irakasleen gelan egin behar ebana—*zuen*— egin ondoren barriro ere eleizara joan zan eta giltzak Taleni emon eutsazan—*eman zizkion*.

Talen ere beste askoren antzera autortzera joan zan, jendearen ustez behintzak.

Autortu ondoren, lehenengo autortu zan irakaslearengana hurreratu—*hurbildu*— zan eta irakasleari esan: “Giltza honeek—*hauek*— aita Bonik emon deustaz—*dizkit*—, oraintxe bertan gogoratu dala nonora joan behar dauala—*duela*— eta ezin leitekela—*litekela*— joan liburutegira esanez”.

“Mila esker”, esan eutsan—*zion*— irakasleak Taleni.

- Orain ez dakit nik aita Bonik entzundako pekatuak parkatuta dagozan—*dauden*— ala ez baina Talenek eta Kletok behintzat ikasturtea errez gaintitu eben—*zuten*— ikasle eta irakasle guztiak harritu baziran ere.